

Arabako Landa Eskolaren Foroa

Joan den martxoaren 17an Araba herrialdeko hainbat IGEtako ordezkariak bildu ginen Denon Eskola Federazioan. Bertaratutakoen asmoa Arabako herrietan, Vitoria-Gasteiz salbu, eskolak bizi duen egoeraren inguruko hausnarketa egin eta etorkizunerako hobekuntza proposamenak egingo lituzkeen lan taldea sortzea izan zen. Bilera horretatik Arabako Landa Eskolaren Foroa atera da eta lanerako tresna legez gaiaren inguruko blog berezi bat eratu du. Blog horretan parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi zaituztegu IGEetako ordezkarioi.

<http://landaeskolaescuelaruralaraba.blogspot.com/>

Eskolatako Wifiaren inguruko topaketa

Joan den apirilaren 9an lehen hezkuntzako hainbat ikastetxetako guraso, irakasle eta zuzendariak osotutako taldeak Eskola 2.0 proiektuaren ezarpenak eta hark erabiltzen duen Wifi sistemak ikastetxetan eragindako egoera aztertzeko bilera deitu zuen. Topaketa horretatik lantaldea sortu da IGE guztiarentzat proposamen komunak prestatzeko. Talde horretan parte hartzeko gogorik izanez gero jar zaitezte kontaktuan Federazioarekin.

Eskola Egutegia

Joan den ikasturtean bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxetan eskola egutegiak betetzen ez zirela ikusi ahal izan genuen ez-ohiko azterketak burutu eta aktak uztailearen 1erako sinaturik izatea ezinezkoa zela argudiatuz. Egoera horren aurrean Denon Eskolatik hezkuntza administrazioari neurriak hartzeko eskaria egin zitzaion. Hori dela eta hezkuntzako lurralde ordezkarietatik zirkularra bidali da ikastetxe guztietako zuzendaritzetara egutegien araudia betetzea eta aipatutako egoerak zuzentzea eskatuz. Hau guztia kontuan izanik zuten ikastetxean neurriak hartzen ari direla eta aurreko ikasturteko egoera eta egutegiaren ez betetze horiek saihesten ari direla konfirmatzeko deia egiten dizuegu.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 20. JAIA

Ekainak 5, Bilbao

Materialak

Urtero bezala Jaiaren inguruko hainbat material atera da salmentarako (unisex kamisetak, neskenentzako kamisetak, umeentzako kamisetak eta motxila txiki bat). Zuen ikastetxerako eskariak egin ditzakezue Federazioan maiatzaren 20a baino lehen. Gauzak errazteko asmoz gure webgunean begira dezakezue bertan neurri guztien informazio zehatza azaltzen baita.



Agenda

Apirilak 19, asteartea

Denon Eskolaren Zuzendaritza Batzordea

Lekua: Federazioaren aldi baterako egoitza

Habana kalea z/g (antzinako Pio Baroja ikastetxea)

Arratsaldeko 17:30etan

Maiatzak 4, asteazkena

Hitzaldia (euskaraz): "Seme-alabek euskara aberatsa izateko aholkuak"

Lekua: Ignacio Aldekoa Kultur Etxea

18:30etan

Bestelakoak

Diru-laguntzak 2011

Hezkuntza Sailarekin izandako azken bileren ondoren zera aurreratu dezakegu, Guraso Elkarteek 2011 urtean haien jarduerak burutu ahal izateko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzetarako deialdia maiatza inguruan aterako dela. Data zehatzak jakin bezain pronto unean uneko informazioa jasoko duzue eta besteren artean zirkularra bidaliko dizuegu Guraso Elkarte guztiei.

OOG eta IGEen Gidak

EHIGE Konfederazioarekin elkarlanean [Eskola kontseiluetan parte hartzeko gidaren](#) 2011 urteko edizioa kaleratu dugu, Denon Eskolan joan den martxoaren 12an antolatu genuen Eskola Kontseiluen inguruko ikastaroan bantatu egin genuina hain zuzen



Era berean IGEen eguneroko lanerako lantresna erabilgarria izan nahi duen [IGEen kudeaketarako oharrik eta gomendioak](#) gida ere atera berri dugu ikasturte honetarako.


Apuntes y recomendaciones PARA LA GESTIÓN DE LA AMPA



Aipatutako dokumentu biak Denon Eskolaren webgunean aurki ditzakezue deskargatzeko:

www.denoneskola.org

¿Padre o profesional?



¿Y por qué no las dos cosas?

NUEVAS Y MEJORES AYUDAS a la conciliación de la vida familiar y laboral.

Infórmate y tramítalas también on line en www.euskadi.net/familia o en el Tel. 012

